HIRIGINTZA I (3. maila)

2009-2010 ikasturteko 2. lauhilekoko 1. ariketa

EREMUAREN AZTERKETA

Donostiako Altza auzoko **Auditz-Akular-Landarro** izeneko eremuaren eta haren inguruaren gaur egungo egoeraren azterketa egingo da, taldeka. Horretarako, 2 plano nagusi emango dira, din A-1 tamainakoak, tolestu gabe (beharrezkoak diren geruza gardenak gehitu daitezke, informazioa garbi erakutsi aldera):

1.- LEHEN PLANOA: Esparru geografiko eta inguru naturalaren azterketa:

-. Topografia: lurraldearen forma eta sestra nagusiak.
-. Hidrologia: ibaiak, errekak, itsasertza eta haien iraunkortasunak.
-. Mugarriak eta erreferentzia-puntuak.
-. Bestelakoak.

2.- BIGARREN PLANOA: Gizakiaren esku-hartzearen azterketa:

-. Hiriguneen mugak.
-. Hiri-egiturak edo -hazkunde motak.
-. Komunikazio-ardatzak eta haien iraunkortasunak.
-. Lurralde-mailako elementuak (eskala handiko ekipamenduak).
-. Bestelakoak.

Oinarri kartografiko digitala —topografikoa, zein katastrala— www.gipuzkoa.net web gunean dago; Donostiako Plan Orokorraren aurrerapena, www.donostia.org web gunean (lotura zuzena: http://ttiki.com/10182); lurralde-mailako informazioa, www.ingurumena.net web gunean (lotura zuzena Donostialdeko 2008ko LPP-aren irizpide eta helburuetara: http://ttiki.com/10183).

Azterketaren eskala 1/10.000-koa izango da, planoa Auditz-Akular-Landarro eremuan gutxi gorabehera zentratuz. Paperean (din A-1 formatuan, tolestu gabe) zein CD-an (.pdf edo .jpg formatuan) emango da, **otsailaren 23**an, 14:30ak baino lehenago.

Gasteizen, 2010eko otsailaren 7an.

Irakaslea: Unai Fdz. de Betoño